

Gradu Amaierako Lana (GRALa): defentsarako gida

Hiru dokumentu igo behar dira ADDIra:

GRALa: Zure Word dokumentuari azaleko orria gehitu behar diozu zabalkunderako lizentziaren logoarekin. Gero, Word dokumentu hori pdf bihurtu behar duzu eta plataformara igo.

ADDIra BAIMENA: Word dokumentua bete eta sinatu. Zure tutoreari ere eskatu behar diozu sinatzeko. "Lanaren zabalkundea" atalean markatu behar duzu zein lizentziarekin zabaldu gura duzun lana. Aukeratzen duzun lizentzia bat etorri behar da lanaren azaleko orrian jarri duzun logoarekin (honi atxikitako lizentzien dokumentuan dago). Gero Word dokumentua pdf bihurtu behar duzu.

PLAGIOARI BURUZKO ADIERAZPENEA: Dokumentu bete eta gero pdf bihurtu.

Gai hau ADDI gidan dago xehetasunez azalduta

<https://www.ehu.es/documents/2307676/14505122/ADDI+guia.pdf/1ad6ac9a-cd16-c08a-4cf9-db6bdea4522f?t=1611324207507>

Laburpena:

- 1- GAUREN GRALaren defentsa eskatzen duzunean, tutoreak e-mail bat jasoko du, defentsarako baimena emateko.
- 2- Tutoreak defentsarako baimena ematen duenean, zuk e-mail bat jasoko duzu DSpace-ko esteka batekin: hor sakatu behar duzu eta egin behar dituzu honi erantsitako gidan azaltzen diren pausoak GRALa ADDI liburutegiko datu basean jartzeko.
- 3- Behin hori eginda, tutoreak beste e-mail bat jasoko du, GRALaren defentsarako baimena berrets dezan.
- 4- GRALa ADDI plataformara igotzeko azken eguna ikasturte bakoitzeko matrikula eta defentsa egutegian iragartzen da. Egutegi horretan, GRALaren defentsa-aldia ere ageri da. Aurreko egunetan, defentsarako izendatu zaizkizun eguna eta ordua jasoko dituzu.

UPV/EHUko posta instituzionala:

GRALari buruzko mezuz guztiak xxxxx@ikasle.ehu.es unibertsitateko postara iritsiko zaizkizu; beraz, oso garrantzitsua da zure postak behar bezala funtzionatzea eta postontzia beteta ez izatea.